

MAIATZAREN LEHENA: Gurea, funtsezkoa, guztiona

Maiatzaren Lehen honetan etxean konfinatuta gaude eta ezin ditugu kaleak hartu, elkarrekin bildu, ez eta besarkatu ere. Baina aurtengo aldarriak berebiziko mezua dakar berarekin batera: Gogoratzen du zer den funtsezkoa biziak jarrai dezan; zeintzuk diren behar-beharrezko sektore eta enpleguak, eta kolektiboa eta publikoa denaren balioa, bera baita berme bakarra egun bizi dugun moduko erronka larriei aurre egiteko.

Horregatik, aurtengo Maiatzaren Lehen honetan gogoan izan nahi ditugu lehenik gure herrian eta mundu guztian zehar hil diren guztiak. Eta nabarmendu zer nolako injustizia humanitarioa izan den milaka pertsona hiltzea, osasun arreta nahikorik eta behar bezalako segurtasunik izan ez dutelako. Pandemiak ez digu guztioi berdin erasan; klase irakurketa ere egin daiteke.

Ezinbestekoa da krisi honetatik ondorioak ateratzea. Mundu guztian izan diren milaka heriotzek agerian utzi dute eredu kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista hau gaixorik dagoela, ahula eta solidaritatearen aurkakoa dela; sistema honek gero eta nekezago hartzen du arnasa, baina gu ere ito egiten gaitu austeritatea eta murrizketak ezarriz.

Orain, mozerroak erori direnean, agintzen gaituen neoliberalismoaren benetako aurpegia eta argudioak begibistan ditugu. Pandemia honek azaleratu duen krisia ez da unean unekoa, estrukturala baizik.

Politika anker eta irtenbiderik gabe honen aurrean milioika emakume eta gizonen harro berresten ditugu Maiatzaren Leheneko balioak: elkartasuna, berdintasuna eta borrokarako konpromisoa; halaber, klase bateko kide garela, langile-klasea.

Joan den urtarrilaren 30ean gure herriko milaka gizon eta emakumek greba orokorra egin genuen gure bizi-baldintzen hobekuntza politikaren lehentasun bilaka zedin. Asteotan bizi izan dugunaren ondoren aldarri eta proposamen horiek aintzat hartzea premiazkoa da.

Ondorio argi bat atera dugu; atzo baino seguruago gaudela gauza batetaz: mehatxu eta erronka handien aurrean aterabide bakarra dago, zera kolektiboa, publikoa, zeinak guztion berdintasuna bermatzen duen. Horregatik, ez ditugu ahazten murrizketak, ez eta izan dituzten eraginak ere, eta are gutxiago injustizia horiei aurre egin zieten ausardia. Honek erakusten digu erantzun kolektiboa beharrezkoa dela gure biziak elkartasun eta berdintasunetik abiatuta defenditzeko. Gaur inoiz baino nabarmenagoa da indibidualismoaren gezurra, arlo pribatuaren “irtenbide” eta pribatizazioak ustelak zirela; gaur erantzunik gabe geratu da, ezgauza da eta burua ezkutatu egin du.

Oso agerikoa da zerk eta nortzuk sostengatzen duten bizia. Gaur are argiago ikusi dugu zein arlo den ezinbestekoa gure bizimodurako: zaintza, osasuna, garbitasuna, elikadura... Jendarteak behar-beharrezkoak dituen sektore horiek, pandemiari aurre egiten dioten horiek, prekarioak eta feminizatuak dira, baina hala da erabaki politiko baten ondorioz. Langile hauen beharra aitortzea ezin da txaloak isiltzearekin batera amaitu: asko zor diegu. Horregatik gure gobernuak hitz eman behar dute ja aitortza sozial orokor hori lan baldintzetan ere islatuko dutela.

Langile-klasearen osasuna defenditzea da uneotan gure lan sindikalaren erabateko lehentasuna, eta hala izango da ere jarduerari berriz heltzen diogun heinean.

Galdegina dugu koherentzia konfinamendu sozialaren eta jarduera ekonomikoaren artean; gure gobernuak, arduragabe jokatu, ez digute entzun nahi izan eta pandemiaren egunak larrienen oinarriak ez diren sektoreak irekitzen tematu ziren. Urkulluren kasuan honek adierazten du bere gobernuak areago entzuten diela gestoreei zientzilariei baino. Gobernu honek lehentasunak finkatzerakoan hanka sartu du, osasun publikoa ezin baita patronalaren, ez interes ekonomikoen

baitan jarri. Segurtasun betekizunak urratzeagatik enpresa bat ere ez dute geldiarazi. Patronalak jotzen duen doinura jokatu dute gure gobernuek. Diskurtso bera dute, gobernu honek patronalari besterik ez baitio entzuten.

Baina soilik patronalari begira egoteaz gainera, alde bakarreko kudeaketa izan da bere bidea. Kargu hartzen dio Madrili aginte bakarra ezarri duelako, baina Lehendakariak lanera itzultzeko erabakiak hartzerakoan modu berean jokatu du, sindikatuekin ezer adostu gabe.

Leporatzen digute gaur osasuna eta bihar enplegua eskatzea. Ez, guk gaurko nahi ditugu osasuna eta lana, baina lan egiteaz gainera bizirik iraun nahi dugu. Ezin baitugu ahaztu hiru hilabete igaro direnean oraindik ere bi langile lurperatuta daudela Zaldibarko hondakinen azpian, eta inork ez duela bere gain ardura politikorik hartu.

Ondo dakigu krisi honek zer nolako ondorioak utziko dituen, osasun eta ekonomian, baita arlo sozialean ere. Horregatik aldarrikatu behar da berehala aldaketa sakonak behar ditugula; aldaketa estrukturalak egiteko abagunea, politikak aldatuko dituen lidergo publikoari aukera emateko.

Pandemia honek gauza asko argituko du, besteak beste, ea gure gobernuak prest ote dauden krisitik ondorioak ateratzeko; ea prest ote dauden zuzenketak eta aldaketak egiteko, lehentasunak irauli eta politikak jendea aintzat hartuz egiteko, ez enpresen etekinei begira.

Austeritate politika behingoz baztertu egin behar da, oztopoa baita jendea babesteko inbertsioa eta gastua egiteko.

Ekonomian eta gizarte-politiketan lidergo publikoaren garaia iritsi da. Hori da bide bakarra zerbitzu publikoak sendotzeko, oinarrizko sektoreetako lan baldintzak hobetzeko edota enplegua sustatzeko.

Gure gobernuek, inoiz baino areago, defenditu beharko lukete birbanatzeko garaia dela; enpresa askori eta aberatsei ematen zaizkien abantaila fiskalak amaiarazteko garaia.

Jendarte honetako zati handi batek sostengua behar du egoera gordin honetan; babes sozialeko politikak ezinbestekoak izango dira inor atzean gelditu ez dadin.

Aukera bidezko eta jasangarri bakarra dago: trantsizio sozial, feminista eta ekologistan aurrera egitea. Horretarako gure indarguneak izango dira mobilizazio soziala, aliantzak, lankidetzak eta kalean erakusten dugun indarra.

ELAk badaki aldi berri hau zaila izango dela; horregatik, Maiatzaren Lehen honetan langile-klasearen antolakuntzarekiko gure konpromisoari eutsiko diogu; erabakitasunez egingo diegu aurre mehatxu eta erasoei, baina baita baliatu ere aldaketa bideratzeko aukerak.

Horretarako prestatzea gure esku baitago.

Gora Maiatzaren lehena!
Gora munduko langileria!

